

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

San Pedro jaiak
argazkitan /08

ETXEBIZITZAK

Hamaika etxebizitza
banatu dituzte /09

LEINTZ GATZAGA

Hitzaldia eta erromeria
asteburuan /10



PAS DE BASQUE
IKUSKIZUNA BIHAR
ARGIA DANTZARITALDEAREN ESKUTIK

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 3
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 4
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituitua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxio ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Gurutze Gorría 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:30
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: GOROETA
Domekan 11:30ean.

ARKARAZO
Domekan 12:30ean.

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO
Ez dute mezarik esango.

OHARRAK

ARGIA DANTZARI TALDEAREN IKUSKIZUNA
Argia Dantzari Taldeak *Pas de Basque* ikuskizuna eskainiko du bihar, zapatua, kirol etxean. Juan Antonio Urbeltzek zuzentzen duen taldean 40 dantzarik eta hamar musikarik hartzen dute parte. Euskal dantza tradizionalak erakutsiko dituzte, baina erabat gaurkotuta: Desafioa, Patuaren Dantzak eta Aratusteetako Dantzak.

UDALEKU IREKIAK
Astelenean, uztaileak 5, hasi eta 23ra bitartean herriko ume eta gaztetxoak Udaleku Irekietan ibiliko dira. Goizetan 10:00etatik 12:30era eta arratsaldeetan 15:00etatik 17:00etara elkartuko dira.

LIBURUTEGIAREN ORDUTEGIA
Uztailaren 1etik irailaren 13ra bitartean udako ordutegia izango dute liburutegian: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan 10:00etatik 13:00etara; martitzen eta eguenetan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Uztailearen 31tik abuztuaren 29ra, berriz, itxita egongo da.

KZGUNEAREN ORDUTEGIA
Udako ordutegia izango du KZGuneak uztaile osoan: 08:00etatik 16:00etara.

LORAMENDIRENAGENDA

TXALAPARTA IKASTAROA UZTAILERAKO
Txalaparta ikastaroa antolatu du Loramendi EEK uztailearako. Atzo hasi zituzten eskolak, eta eguenetan emango dituzte inguruko auzoetara joanda; 19:00etan izango dira. Izena emateko lehenbailehen joan Loramendi EEren lokalera eta hamar euro ordaindu; ikasle eta langabeek, oster, sei euro.

ORAINDELA 10 URTE ARETXABALETAN

Ospitale zaharreko zona berri egin zuten

Aretxabaletako sarreran dagoen ospitale zaharreko zona berri egin zuten orain dela 10 urte. 1994ko uztailearen 6an inauguratu zituzten, hain zuzen, umeendako jolaslekua eta atsedenaldirako tokia. Jarlekuak, zuhaitzak eta iturria jarri zituzten, eta 16 milioi pezetako gastua izan zuen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Kakotu”

Pertsona okertu, zahardadea edo. — *Petra ikusi dot kalia eta ziero kakotuta dago.*



LIBURUTEGIKOTXOKOA

Oporretarako liburuak

- 8 urtetik aurrerako gaztetxoendako liburuak**
- 'Zuk-Zuk jaunaren alfabeto berria' / B. Atxaga
 - 'En el mar de la imaginación' / R. Calatayud
 - 'Alizia haurrentzat' / L. Carroll
 - 'Bi ipotz gure etxeko sofán' / A. Iturbe
 - 'Anton Kaiku' / A. Izagirre
 - 'Los despistes de Matías' / M. Lembcke
 - 'Bakarrik eta Buztangabe' / P. Zubizarreta

- 10 urtetik aurrerako gaztetxoendako liburuak**
- 'La escuela vacía' / T. Ben Jellon
 - 'Uratxima kementsua' / N. Bodin
 - 'Ustez aitona' / P. Bordons
 - 'Cuentos de todos los colores' / RBA
 - 'Emily la sirenita accidental' / L. Kessler
 - 'Las noches del gato verde' / E. Mulder
 - 'Gerezi-lorea: Japoniako kondairak' / A. Olano
 - 'Garmendia eta zaldun beltza' / K. Uribe
 - 'Jonas el pescador' / R. Zimnik

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa


Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, Asteleheneko Goienkaria-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com



ATREBENTZIAEZPADA/ Hartuko dozu parte aurtengo Udaleku Irekietan? Ze gustetan jatzu gehixen?



NEREA ELORZA
7 urte



MARKEL BEREZIBAR
8 urte



AINHOA GARRO
10 urte



BEÑAT ARIZABALETA
6 urte



JUNE ERRASTI
8 urte



LANDER ASTRABUDUAGA
4 urte

Aurten ez dot hartuko parte, ez dotelako tokirik aurkittu. Aurreko urtietan, fan izen naz, eta oso ondo pasau dot lagunekin jolasien. Aurten, baiñe, Nafarroara fan eta igerilekuen ibilliko naz.

Aurreko urtietan fan izen naz udalekuetara, baiñe aurten ez dot parte hartuko. Asko aspertzen naz bertan. Uztaillien kalien ibilliko naz neure lagunekin jolasien.


Bai han ibilliko naz asteleheneetik aurrera. Lagunekin jokuetan parte hartzie gustetan jat gehixen. Irteeratan, San Fermin egunien eta Uraren egunien be oso ondo pasetan dot.

Bai, aurten be fango naz. Irteerak egittie gustetan jat gehixen. Galartzan egon gitzen igez, eta oso ondo pasau nauen. Azken eguneko jaixen be oso ondo ibilli nitzenlagunekin.

Bai, urtero hartu dot parte eta aurten be egongo naz udalekuetan. Irteerak egittie eta kanpora fatie gustetan jat gehixen, baiñe antolaketan dittuen ekintza danetan pasetan dot ondo.

Bai, aurreko urtien be ibilli nintzen. Lagunekin elkartu eta jolasien pasetan geuen egune. Irteeriegin gauen egune gogoraketan dot onduen, eta primeran pasau nauen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK APURKETAK GOROETAKO KANPOSANTUAN Ezezagunak ibili ziren joan zen asteburuan Goroeta auzoko kanposantuan. Hilobiko hilarri bati gurutzea kendu eta horman zegoen beste hilarri bat apurto egin zuten harekin. Aipatutako gurutzearekin, gainera, elizpean zuloa egin zuten; baita sua egin eta zortzi igel erre ere. Aspertuta dabilta batzuk, antza denez. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

'Pas de Basque' ikuskizuna

Pas de Basque dantza ikuskizuna eskainiko du Argia Dantza Taldeak bihar kirol etxean.

ASTEAN BEHIN /05

Astelehenean Udaleku Irekiak

Astelehenean, uztaillak 5, hasiko dira herriko ume eta gaztetxoak aurtengo Udaleku Irekietan.

KIROLAK /06

Udako kirol ikastaroak

Astelehenean hasi zituzten Udalak antolatutako kirol ikastaroak. 45 ikasle dabilta lehen txandan.

ASTEKO DATUA

93

GAZTETXOK EMAN DUTE IZENA KIROL IKASTAROETAN

Astelehenean hasi ziren herriko ume eta gaztetxoak kirol ikastaroetan. Bederatzi kirol dituzte aukeran bi astean egiteko, eta lehen txandan 45 gaztetxo dabilta. Guztira 93k eman du izena.

BESTEKEKESANA

“


Angel Barandiaran Aita Emilianoren lobaren ideia izan zen. Aurten bere jaiotzaren 100.

urteurrena izango zela konturatu eta zerbait berezia egitea bururatu zitzaion. Markinako karmeldarrek aldizkaria egiten dutela zekien eta harengana eta Eskoriätzako Udalera joan zuen. Bai batzuk eta bai besteek ongi hartu zuten.

Nire ardura monografikoa egiten parte hartuko lukeen jendea aurkitzea izan zen; bakoitzak ez du zertan dena jakinik, norberak ez dakiena zeinek dakien jakin behar da. Hala, zenbait eskoriatzar, aretxabaletar eta karmeldarrekin talde bat sortu genuen eta monografikoa egin. Juan Carlos Bengoak, Mari Carmen Arrietak eta Angel Barandiaranek hartu dute parte.

AITOR ANTIXIA
'Asteleheneko Goienkaria' /04-06-28

HERRITARRENBERBAK/ Anjel Bergaretxe



Euskara beherantz

Duela gutxi, gure herriko euskararen erabilerrari buruzko datuak kalera tu dituzte, eta antza denez, gero eta gutxiago erabiltzen da euskara Aretxabaletan.

Honen harira, hainbat iritzi kaleratu da, Goienaren webguneko eztabaida luzea barne, eta gehienak jaitsieraren arrazoiak eta "errudunak" bilatzen zirenak; baita aurkitu ere: eskolak, instituzioak, gurasoak...

Ez dut ukatuko horietako bakoitzak erantzukizun zatia baduela, eta ez txikia kasu askotan. Garbi dago ardura eta aukera gehien duen Eusko Jaurlaritzak ez duela borondate gehiegi erakusten hainbat arlo euskaratzeko orduan: Osakidetza, ertzaintza, telebista...

Ez diot ezetzik esango Udalak edota eskolek ere, egiten dutena baino gehiago egin dezaketela esaten didanari. Kultur, kirol eta beste esparruetako herri miugimenduek ere, herritarrengan duten eragina kontutan izanik, asko egin dezakete gure hizkuntzaren alde, bai, egia da hori ere.

Baina nago oraingoan tiro luzezia bota dugula erruduna harapatzeko. Urrutiegia topatu gura izan dugu arrazoiak, uste baino gertuago dugunean ziur asko. Izan ere, ezin dugu ahaztu, Aretxabaletan "euskara gutxiago erabiltzen da" horrek, ARETXABALETARROK EUSKARA

"Nahiko ahalegin egiten dugu euskara erabiltzen, eta gure ingurukoek erabili dezaten?"

GUTXIAGO ERABILTZEN DUGU esan gura duela.

Orain eman diren datuek kalean entzuten den euskara kopuruaren neurria ematen dute, hau da, guk geuk erabiltzen dugunaren neurria. Ez litzateke txarra izango, beste batzuei ardurak

eskatzeaz gain, bakoitzak hausnarketa sakona egingo bagenu.

Nahiko ahalegin egiten dugu euskara erabiltzen, eta gure ingurukoek erabili dezaten?

Horrelakoetan Artzeren esaldi famatua erabili ohi da, baina nik gaur Gandiagarena ekarri gura nuke: "Baina eta hemen, euskaraz jakin arren euskaraz mintzatzen ez denak ere, ez digu uzten euskaraz egiten".

Eta zuk? Uzten diezu ingurukoek euskaraz egiten?

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Etxebizitza kontuek

Azken astiotan etxebizitzak dittugu berbagai. Lelengo Eusko Jaurlaritzak Tubos inguruen egin biher dituden sozialak izen zien; eta oin, antza denez, erreken beste aldeen egin biher ditudenak datoz. Astelehenien egin biher dau udalbatzak osoko bilkurie zonalde hortan etxiek egitteko hitzarmena onarketako. Sasoi baten hor eraikiko zittuen %65 protekzio-kuek izengo ziela esan euien; ia beteten dauien orduko berbie, nahiz eta beste batzuk egon oin udaletxien, kontu asko entzun die-eta. Horrekin jarraituaz Aralar alderdixek etxebizitzaren gaineko hitzaldixe antolatatu dau egunerako. Gaixe pil-pillien dauen seiñalie...

Ohitura bihurtu jaku kirol kontuetan zorionak emutie, baiñe kirolari bikaiñiek daukou herri-xen-eta... **Errasti anaiek** Debarroko Pilota Txapelketako txapeldunek die senior maillan. Aurten be lortu daue, zorionak ba! **Aitor Alcaidek**, barriz, Zumarragako Xake Bizkorreko Txapelketa irabazi dau; zorionak honi be.

Datorren astien be zorionak emun biherrien izengo naz, baiñe Andramaihetako kartel eta esaldi lehiaketetako irabazliei. Zein azal ikusiko ete dou aurtengo egitarauen...

IKUSKIZUNA/ 40 dantzarik baino gehiagok eta hamar bat musikarik hartuko dute parte bihariko ikuskizunean

Berritutako euskal dantzak aurkeztuko ditu Argia taldeak 'Pas de Basque' ikuskizunean

MIRARI ALTUBE

Argia Dantzari Taldeak *Pas de Basque* ikuskizuna eskainiko die aretxabaletarrei bihar, kirol etxean. Juan Antonio Urbeltzek zuzentzen duen taldeak 2002an aurkeztu zuen lehen aldiz ikuskizuna, eta geroztik euskal dantzen ikuskizun berritua han eta hemen dabil.

Prentsaurrekoa eskaini zuten Juan Antonio Urbeltz Argia Dantzari Taldeko zuzendariak, Jexux Larrea Dantza Taldeko maisuak eta Xabier Sarasua Kultura zinegotziak martitzenean. Bihar, zapatua, kirol etxean izango den *Pas de Basque* ikuskizuna aurkeztu zuten.

IKUSKIZUN ERAKARGARRIA

Herritarrek dituzten kultura eskaerak ase guran ekarri du Kultura Sailak Argia Dantzari Taldearen azken ikuskizuna. "Herritarrek askotariko ikuskizunak, erakargarriak eta kalitatezkoak gura dituzte, eta Argia Dantzari Taldearen *Pas de Basque*-k hori guztia betetzen du", esan zuen Xabier Sarasuak; "hortaz, herritar guztiak animatu gura ditugu kirol etxera joan eta ikuskizunaz goza dezaten".

2002AN AURKEZTUTAKO IKUSKIZUNA

Pas de Basque ikuskizuna 2002ko irailean aurkeztu zuten lehen aldiz Miarriritzen. Geroztik gertatu barik ibili dira han eta hemen, eta antzokirik dotoreenetara hurreratu da Argia Dantzari Taldea: Bilboko Arriagara, Iruñeko Gaiarrera, Donostiako Hamabostaldira, Zugarramurdiko kobazuloetara Rafael Amargo dantzari ezagunarekin batera... Bihar, ostera, Aretxabaletara hurreratuko dira.

DANTZA TRADIZIONALAK BERRITUTA

Euskal dantza tradizionalak aurkeztuko ditu Argiak *Pas de Basque* ikuskizunean, baina erabat berrituta. "Horretarako ikuskizuna asko murriztu dugu, minimalista egin dugula esan daiteke, eta dantzariarengan jarri dugu



Juan Antonio Urbeltz zuzendariak, Jexux Larrea maisuak eta Xabier Sarasua Kultura zinegotziak aurkeztu zuten ikuskizuna.

protagonismo osoa", esan zuen Juan Antonio Urbeltz taldeko zuzendari eta ikuskizunaren sortzaileak. Hiru zati ditu *Pas de Basque*-k: Desafioa, mutilek dantzatzuten duten aureskua ardatz hartuta; Patuaren Dantzak, Zinta

Dantzak adierazten duen bizitzaren zuhaitzean oinarrituta; eta Aratusteetako Dantzak, Zube-roako dantzak oinarri hartu eta hainbat berreskuratu dituzte.

40 dantzarik baino gehiagok hartuko dute parte ikuskizunean,

tartean Añorgako Arkaitz, Elgoibarko Haritz eta Eibarko Kezka taldeetako kideek; baita hamar bat musikarik ere.

Ikuskizun bikaina izango dugu bihar Aretxabaletako kirol etxean 22:30ean hasita.

40 urteko ibilbidea duen dantzari taldea

Urte asko daramatza Argia Dantzari Taldeak euskal kulturaren alde lanean. Juan Antonio Urbeltzek 1965ean hartu zuen taldearen zuzendaritza, baina dagoneko sortua zegoen. Tokian tokiko dantzak ezagutu eta berreskuratzen hasi zen Argia, Urbeltzen esanetara. Hala, herri txikietara jo, dantzari eta musikariek hitz egin, jantziak osatu eta ikuskizunak gertatu zituen Urbeltzek. 1967ko otsailean aurkeztu zen lehen aldiz jendaurrean

Argia Dantzari Taldea, eta aho zabalik utzi zituen ikusleak. 70eko hamarkadan herrialde bakoitzaren gaineko ikuskizunak aurkeztu zituzten. Gero, ostera, dantza berriak sortzen hasi zen Juan Antonio Urbeltz. Horrela sortu zituen 1987an, *Irradaka*; 1988an, *Zortziko*; 1989an, *Muriska*; 1992an, *Alakiketan*; eta 1997an, *Kondharian*. *Irulea eta Itzaiaren ezteiak*. 1998an, bestalde, Europa saria eman zioten taldeari Hanburgon.

Jon Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

AISIALDIA/ Jolasak, eskulanak, txangoak eta jaiak izango dituzte hiru astean zehar

Astelehenean hasiko dira umeak Udaleku Irekietan

M.A.

Sartu gara uztailean, eta herriko ume eta gaztetxo gehienak oporretan daude. Eta zer egin oporretan ez aspertzeko? Udaleku Irekietan parte hartu, esaterako. Herriatik irten barik ederto pasatzeko aukera eskaintzen du Udaleku Kultura Sailak.

Ez dakizula zela entretenitu zure semea edo alaba? Egutero asperuta dagoela esaten dabilela? Bidal ezazu Udaleku Irekietara; astelehenean hasi eta hilaren 23a bitartean, akabo buruhausteak!

JOLASAK, JAIK ETA TXANGOAK

Izan ere, 4 eta 14 urte bitarteko herriko 200 bat ume eta gaztetxok eman dute izena aurtengo Udaleku Irekietan, eta 30en bat begirale ibiliko dira eurekin. Umeen eta begiraleen ardura, ostera, Larraitz Inurrategik, Nuria Arribasek eta Ainara Larrañagak izango dute.

Jolasak, eskulanak, txangoak, dantzaldiak... Hori eta gehiago izango dituzte hiru astean goizez eta arratsaldez. San Fermin eguna, Euskararen eguna eta azken



Ospakizun berezietan eta txangoetan ondo baino hobeto pasatzen dute gaztetxoek.

eguneko festa ere egingo dituzte, eta jai giro paregabea sortuko dute herriko kale bazterretan. Lehen Hezkuntzako 1. mailatik aurrerakoak Galartzara joango

dira gau bat pasatzera eta 5. eta 6. mailakoek Gamarrako igerilekura txangoa egingo dute. Hortaz, egitarau dotorea gertatu diete uztailean aspertu barik pasatzeko.

Ikastaroak emango dituzte KZGunean, astelehenean hasita

M.A.

Hainbat ikastaro antolatu ditu KZGuneak uztaileko. Astelehenean hasiko dira oinarrizko Interneten gainekoa ematen, baina nagusiei zuzendutakoak eta mintegiak ere egingo dituzte. Hortaz, Markole auzoan dagoen KZGunea hurreratu eta eman izena.

Dagoeneko 465 aretxabaletar hurreratu dira KZGunea zabaldu zutenetik. Uztailean ere badago ikastaroak egiteko aukera. Hori

bai, ordutegi berezia izango du KZGuneak: 08:00etatik 16:00etara.

IKASTAROAK ETA MINGEGIAK

Uztaile zerbait ikasteko aprobetxatu gura duenak KZGunea jo dezake. Astelehenean hasi eta hilaren 16ra artean Interneten gaineko oinarrizko ikastaroa izango da; 20 ordukoa izango da, eta bi ordutegi daude aukeran. Uztailearen 19tik 23ra artean nagusiei zuzendutako antolatu dute; hamar ordukoa da.

Gai berezi baten gaineko mintegiak ere antolatu dituzte; egun

baten egitekoak izango dira. Hala, bankuarekin zela lan egin erakutsiko dute, eta bi ikastaro egongo dira: oinarrizkoa hilaren 14an eta aurreratua 15ean. Hilaren 16an Interneten zela egin erakutsiko dute, eta messengerraren gaineko mintegia 26an eta 27an egingo dute. Aseguruak Internet bidez kontratatzen ikasi gura duenak, bestalde, 28an izango du aukera. Interneten gaineko ezagutzak baieztatzen dituen IT txartela ateratzeko azterketa, berriz, hilaren 16an izango da, 11:00etan.

LABUR

Etxebizitza politikaren gaineko hitzaldia antolatu du Aralarrek datorren egunerako

Hitzaldia antolatu du Aralar alderdiak datorren egunerako, hilak 8. Etxebizitza politika Aretxabaletan izango da gaia, eta Laudioko udal arkitektoa den Fernando Hevia egongo da hizlarien artean. Deba errekararen beste aldean etxebizitzak egin gura ditu Udalak eta laster arauak onartuko ditu udalbatzak. Gaiak daukan interesa ikusita Aralar alderdiak etxebizitza politikaren berri eman gura die herritarrei. Uztailearen 8an izango da aipatutako hitzaldia, 19:30ean, udaletxe zaharrean.



San Juan sua udari ongietorria egiteko

Itzali zaigu San Juan sua eta tantaia kentzeko ordua da. Aurten ere usadio zaharrak berriro ditugu aretxabaletarrok, eta plaza bete egin zen San Juan sua ikusteko. Txukun eta dotore igo zuten Oro ingurutik ekarritako tantaia Santa Ageda mutilek; igo ostean gazta eta ogia banatu zituzten, eta ohiturari jarraituz txiza egin zioten plazan jarritako enborrari. / M.A.

Lubia
oinetakoak

beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53 ARRASATE

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

J.J. IRURE
KALEFAKZIOA
URA GASA
MITARTE, 15
ARETXABALETA
943 793 187

Matikua
jatetxea
Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

GARBITU S. KOOP
Garbiketa
orokorrak
Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

UDAKO KIROL IKASTAROAK

Udako kirol ikastaroetako lehenengo txandan 45 gaztetxo dabilta

Bigarren txandakoak hilaren 12an hasiko dira eta oraindik badago izena emateko aukera

M.A.

Astelehenean hasi zituzten udako kirol ikastaroak. Udaleko Kirol Zerbitzuak urtero antolatzen ditu, eta aurten, dagoeneko 93 ume eta gaztetxok eman du izena. Lehenengo txandan 45 hasi dira, eta bigarrenerako oraindik izena eman daiteke.

Udaleku Irekietara joan gura ez duenak badu beste aukerarik, kirol etxean egiten dabilta ikastaroetan parte hartu. Hala erabaki dute hainbat neska-mutikok, eta gustura dabilta tenisean, aerobicean edo igerian ikasten.

ARRAKASTA HANDIENA TENISAK

Dagoeneko 93 ume eta gaztetxok eman du izena udako kirol ikastaroetan parte hartzeko. Lehenengo txandakoak, 45 guztira, astelehenean hasi ziren ikastaroetan, eta datorren astean ere izango dituzte eskolak.

Arrakasta handiena izan duen ikastaroa tenisa izan da. Hiru talde osatu dituzte, eta guztira 17 ikasle dabilta zela jokatu ikasten Bixen Calzon aretxabaletarraren esanetara. Igeriketan 12 umek eman du izena, eta bi talde osatu dituzte. Hauek dira, gainera, ikaslerik gaztetxoena 4 urte-tik aurrerako umeak daude-eta. Pedro Balenciaga igerilekuko begiralea dute irakasle. Aerobicean hamar neskek eman dute izena, eta talde bakarra osatu dute



Tenisak arrakasta handia izan du, eta 17 lagunek eman dute izena.

Eli Plama irakasle dutela. Golfean ere talde bakarra osatu dute zazpi ikaslek, eta Asier Mujika kirol teknikaria dabil zela jokatu irakasten. Patinajea ere 7 ikasle ditu Mikel Morras arrasatear irakasleak.

BIGARREN TXANDA HILAREN 12AN

Bederatzi ikastaro eskaini zituen ekainean Udaleko Kirol

Zerbitzuak, eta horietatik bost dabilta ematen astelehenaz gero. Eskalada, badminton, esku pilota eta multikirola ez dira aurrera atera lehenengo txandan. Uztailearen 12an hasiko dituzte bigarren txandako ikastaroak, eta oraindik badago aukera izena emateko; kirol etxera jo besterik ez dute interesatuek (943 71 26 28).

XAKEA

Aitor Alcaidek irabazi zuen zapatuan Zumarragako Xake Bizkorreko Txapelketa

Zapatuan jokatu zuten Zumarragako Xake Bizkorreko Txapelketa xake jokalariek. Aretxabaletatik Arlutz Xake Taldeko Fran Miguel eta Aitor Alcaide hurreratu ziren, eta oso emaitza onak lortu zituzten. Aitor izan zen txapelduna eta Fran bigarren geratu zen; hirugarren postua, ostera, Bilbon bizi den Carlos Varas txiletarrantzat izan zen. Parte hartze txikia izan zuen txapelketa, beste txapelketa batzuk zeudelako egun berean, baina maila ona egon zen.

Abuztuan, bestalde, Espainiako Xake Txapelketa jokatu dute Sevillan. Aitor Alcaidek parte hartzeko asmoa dauka. Orain bost urte ere hartu zuen parte Aitorrek txapelketa honetan.



Errasti anaiak aurten ere txapeldunak

Bukatu dute Debarroko Pilota txapelketa eta Errasti anaiak txapeldunak izan ditugu. Partidu gogorra jokatu zuten Bergarako Gutierrez eta Mugaruzaren aurka, baina hasieratik hartu ziren aurrea, eta 22-18 egin zuten azkenean. Laugarren aldiz izan dira aurten txapeldun Aretxabaletako anaiak. Ibon Errasti, gainera, txapelketako jokalaria onenen artean izendatu zuten. / M.A.

Hirusta
Taberna

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

Esko Sport

Zure konfidantzako denda

Intxaurtxueta 5, ESKORIATZA. 943 71 52 96

trang world TUCKLAND SALOMON

TERNUA ATORE adidas

EGUZKIGRAF

inprimategia 1979-2004

25. urteurrena

ESKANDINAVIAN zehar zirkuituak

UZTAILEKO Irteerak 8 egun / 7 gau

FINLANDIA IKUSGARRIA

HOTELAK *** / **** MO/ME 1.374

Ikustekoak: Rovaniemi, Kuopio, Koli, Savonlinna, Porvoo y Helsinki.

NORUEGA IKUSGARRIA

HOTELAK *** / **** ME/HG 1.394

Ikustekoak: Oslo, Geilo, Bergen, Valle de Voss, Sognefjord, Región de los Fiordos, Crucero Geiranger, Alesund y Trondheim.

ERREP. ETA BALTIKOKO PERLA EDERRAK

HOTELAK *** / **** ME 1.434

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Báltico y Estocolmo.

FIORDOETAKO INPERIOA

HOTELAK *** / **** MO/HG 1.524

Ikustekoak: Bergen, Valle de Voss, Región de los Fiordos, Oslo y Copenhague.

BALTIKOKO ERREPUBLICAK

HOTELAK *** / **** ME/HG 1.518

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Helsinki y St Petersburgo.

HORIZONTES DE GRANDEZA I

HOTELAK *** / **** HG/ME 1.519

Ikustekoak: Rovaniemi, Kiruna, Parque de Abisko, Islas Lofoten, Vesteralen, Tromso, Fiordos de Lyngen y Ulls, Ctra Atlántica, Alta, Cabo Norte, Karasjok y Lakselv.

ISLANDIA IKUSGARRIA


HOTELAK TUR / 1ª HG 1.849

Ikustekoak: Reykjavik, Región de Nordurland, Myvatn, Lago Myvatn, Egilsstadir, Región de Austurland, Región Skaftafellssylur, Skogafoss, Hvalsövellur, Circulo Dorado y Laguna Azul.

400 bulego baino gehiago zure zerbitzura

902 108 108 - viajesiberia.com

BAL-001-M/M



ZURE OPORRENGATIK EGIN
DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

GIPUZKOAKO BULEGOA

DONOSTIA

- Avda. Isabel II, 7 Tel. 943 44 44 90
- Boulevard, 27 Tel. 943 42 73 61
- Churruga, 8 Tel. 943 42 35 50
- Matia, 48 Tel. 943 22 40 89
- Padre Larroca, 7 (Gros) Tel. 943 27 26 00
- San martin, 6 Tel. 943 42 00 71

ARRASATE

- Kontezino Kalea, 18 Tel. 943 71 27 72

BERGARA

- Ibargarai, 3 Tel. 943 76 98 70

Irteerak Bilbotik. Prezioak pertsonako logela bikoitza eta aurretik aipatutako erregimenean, uztaileko egu konkretuentzat bakarrik. Aireko tarifan igoera, tasa bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: HG, Hotela eta Gosaria; ME, Mantenu Erdia; G, Guztia Barne. **ESERLEKU MUGATUAK.**

Irteerak
BILBOTIK

VIAJES IBERIA

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko uztailaren 2a / 172. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: S5200/99

Jende gutxiago egon arren ederto ibili dira eskoriatzarrak San Pedro jaietan

ZURIÑE VÉLEZ DE MENDIZABAL

Jaiak aste barruan ospatzeak jende gutxiago egotea adierazten du sarritan. Baina San Pedro jaiak herrian igaro dituzten eskoriatzarrak primeran ibili dira. Egitarau zabala izan dute eskura, eta ez da aspertzeko betarik egon. Malaje ikuskizunak jende ugari bildu zuen Gorosarri plazan martitzen gauean; Euskal Jaira ere lagun ugari gerturatu zen. Haurrek beraientzako egitarauaren barruan buruhandi eta pailazoak izan zituzten ikusgai. Pilota partidura ere jende ugari hurreratu zen martitzen arratsaldean.

*Aurreko urteetan
baino jende
gutxiago ibili da
Eskoriatzako
kaleetan*

*Herriko ume eta
nagusien
danborradek
ikuskitzen polita
eskaini dute*



Buruhandiek bat baino gehiago jarri zuten korrika egiten.



Txupinazo eta pregoiarekin eman zioten hasiera San Pedroei.



Makina bat gaztetxo gerturatu zen Poxpolo eta Mokoloren abenturak ikustera.



Elizbiran San Pedoren irudia kalera atera zuten.



Pilotalekua lepo bete zen partiduak jarraitzeko asmoz.



Aberia kale antzerkiak bat baino gehiago harritu zuten.

BABES OFIZIALEKO 16 ETXEBIZITZETATIK 11 ZOZKETATU ZITUZTEN

Intxaurtxuetan daude San Juan egunean esleitutako etxebizitzak

Z.V.M.

San Juan egunean, ekainak 24, 12 etxebizitza sozial zozkatu zituzten Eskoriatzan. Udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan egin zuten aipatutako zozketa. Bertan egon ziren, besteak beste, Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua eta Juan Carlos Bengoa herriko alkatea.

Intxaurtxueta auzoan egongo dira eguaztenean esleitutako etxebizitzak; guztira 16 dira. Hala ere, 12 bakarrik zozketatu zituzten, eta horietatik bat hutsik geratu zen. Guztira 265 pertsonak eman zuten zozketan parte hartzeko izena, baina bakoitzaren egoera aztertu ondoren, badirudi 21 lagunek bakarrik betetzen zituztela zozketan sartzeko baldintzak.

LAU TALDETA BANATUTA

Eskoriatzaz gain, zozketaren deialdia Leintz Gatzaga eta Aramoioko herritarrei ere zuzenduta zegoen. Aukeratutakoekin lau talde edo kupo egin zituzten. Lehenengo taldea guraso baka-



Bolondresak atera zituzten zenbakiak Madrazoren begiradapean.

rrero familiek osatzen dute. Hiru eskaera egin ziren, eta bi etxebizitza esleitu. Talde horretan, Maria de la Paz Pizarro eta Maria Elisabet Alberdiri egokitu zaie

etxea. Bigarren kupoa 35 urte azpiko gazteek osatzen dute, eta zozketarako aukeratutako 12 pertsonatik zazpi laguni egokitu zaie etxea: Urki Larrea, Leire

Junkal Pagaldai, Maria Jose Ortiz, Jose Ramon Eskibel, Oihana Eriz, Estibaliz Gomez eta Ana Maria Martini, hain zuzen ere.

Hirugarren taldea orokorra da, eta Maria Pilar Garcia eta Antonia Rodriguez egokitu zaie etxebizitza. Laugarren talde bat ere sartzen zen zozketan, baina eskaerarik egin ezenez, hutsik geratu da; urrituentzako egokitutako etxebizitzena, hain zuzen.

INTXAURTXUETAKO ETXEAK

Intxaurtxueta eraikiko dituzten etxe horiek ez dute azalera bera. 69,45 metro koadrotik 89,40 metro koadrorra bitartekoak dira. Horien salneurria hainbat irizpide jarraituta baloratuko da. Etxebizitza horien jabeek 77,90 eta 147 euro artean ordaindu beharko dute hilero errentan.

Zozketa behar den moduan egin zutela egiaztatzeko, notarioa ere egon zen bertan. Eta, horrez gainera, boluntarioek aukeratu zituzten zozketan irten ziren zenbakiak. Batek baino gehiagok eskertuko die.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

KONTZERTUA GAZTETXEAN


Kontzertua antolatu du herriko Gazte Asanbladak. Eskoriatzako gaztetxean. Brigada Criminal, Captain Nemo eta Valium Generatium taldeak arituko dira. Gaur, egubakoitza, eskainiko dute emanaldia hiru taldeek, 22:00etan hasita Eskoriatzako Gaztetxean.

TRIAL 4X4 TXAPELKETA

Bihar, zapatua, uztailak 3, I. Trial 4X4 txapelketa egingo da. Elorretan, Bolibarko bidean egingo dute norgehiagoka, 15:00etan hasita. Bertara joan nahi izanez gero, ez da sarrerarik ordaindu beharko.

ERAKUSKETA

Eskoriatzatik pasatuko den autobideak eragingo dituen kalteei irtenbidea aurkitu guran dabilta aspaldian. Horren arira, erakusketa egongo da irekita uztailaren 14ra bitartean Eskoriatzako kultura etxean. Goiz eta arratsaldean bisitatu daiteke erakusketa.



Autobidearen inpaktuei buruzko erakusketa

Martitzen goizean ireki zuten Eskoriatza zeharkatuko duen autobidearen inguruko erakusketa. Proiektuak eragingo dituen kalteak konpentsatuak izan daitezzen gura dute kalte-tutakoen elkartekoak. Erakusketan, autobideak ekarriko dituen arazoak deskribatzen dira, eta kalteak jarraituko alegazio eta proposamenak zeintzuk diren ikus daiteke kultura etxean. Goiz eta arratsaldean irekiko dute erakusketa eta uztailaren 14ra arte egongo da ikusgai.Z.V.M.

EDURNE
ESTETIKA ZENTROA

Informa zaitez!

Model-in tratamenduak.

Zelulitisa eta gizentasuna:
horiekin bukatzeko osagaiak dauzkagu
Zelulitisari STOP

Aranburuzabala 42 Tel.: 943 71 51 54 ESKORIATZA

LAGUNAK
GASTALEKU

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ KLINIKA

~

Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure Zerbitzura

Pilotaleku azpiko garajeak esleitzea adostu zuen astelehenean Udalak

Z.V.M.


Ekainaren 28an osoko bilkura egin zuten, eta garajeei buruz aritu ziren bertan. Abuztu aldera hasiko omen dira eskaerak aztertu eta plazen esleipena egiten; betiere plaza bakoitzaren eta automobilen ezaugarrien arabera egingo dute banaketa.

Gatzagako pilotalekuaren azpian hainbat garaje daude. Leintz Gatzagako Udalak horiek esleitzeko plana egin zuen, eta horretan hasi dira jada udalbatzako kideak. Hala, astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran hainbat erabaki hartu zituzten.

Oraindik ez dute dena zehaztu, baina bertan dauden hainbat plaza herritarrei esleitzeko zaizkie. 19 garaje dira banatuko direnak, eta guztira 17 herritarrek egin dute eskaera.

Astelehenean eskaerak aztertu eta garajeen esleipena egitea adostu zen. Hala ere, ez da berehalakoan egingo. Abuztuaren hasieran eskaerak begiratzen.

Bakoitzaren beharrak hartuko dituzte kontuan. Izan ere, pilota-



17 eskaera jaso ditu Udalak eskaintzen pilotaleku azpiko 19 garajeentzako; beraz, guztiek jasoko dute bat.

leku azpiko garaje guztiek ez dute neurri bera; eta autoak sartzera-koan egin beharreko maniobrak ere ez dira maila berekoak. Horre-

gatik eskaera egin dutenen ibilgailuen ezaugarrien arabera banatuko omen dituzte plazak, Udaltik adierazitakoaren arabera.

Behin plaza horiek esleituta, bi urte eta bost hilabetez izango dituzte gatzagarrek euren ardurapean garaje horiek.



Gurelek bilera egingo du datorren astelehenean

Astelehenean egingo dute Gurel elkarteko kideek bilera. Udalekuak hizpide izango dute elkartean biltzen direnek. Abuztuaren 12an hasiko dira herriko gaztetxoei zuzendutako ekimenak. Dagoeneko gehiena prestatu dute. Hala ere, zenbait kontu dituzte zehazteke: kanpora egingo dituzten ibilaldiak nora egin, esaterako. Seme-alabek ahalik eta ondoen igarotzea da gurasoen asmoa. Astelehenean elkartuko dira, 18:00etan elkartean. /Z.V.M.

LABUR

Zapatuan hitzaldia eta domekan San Martinen erronomia

Bihar, zapatua, bidaia bati buruzko hitzaldia izango dute entzungai Gatzagan. Izan ere, Eneko Etxebarrieta abenturazalea joango da herrira, eta bere bidaiei buruz mintzatu-ko da. Enekok hiru urte eta 11 hilabete igaro zituen munduan zehar bere bizikleta gainean. Guztira 46 mila kilometro egin ditu eta 35 herrialdetan egon da. Bere abenturak entzuteko aukera egongo da kultura etxean, 19.00etan.

Bestalde, uztailaren 4an, domeka, San Martin ermitaren eguna da. Gatzagarrek egun hori ospatzeko asmoa dute. 12:00etan etxafuegoak botata hasiko dute ospakizuna. Horren ondoren, meza esango dute ermitan bertan, eta gero, luntxa izango dute dastagai hara gerturatzen direnek. Baina jolasteko aukera ere izango dute. Izan ere, doke partida antolatu dute domekarako. Azkenik, musikaren laguntzarekin, erronomia egingo dutela adierazi digute antolatzaileek.

Negoiazio mahai irekitzea adostu dute osoko bilkuran

Astelehenean ohiko osoko bilkura egin zuten Gatzagan. Udal ordezkariekin batera Udaleko langileak egon ziren, eta euren lan hitzarmenari buruzko gaia atera zuten. Hala, negoziazio mahai bat irekitzea eskatu zioten udalbatzari. Eskaera onartu egin zuten osoko bilkuran. Udaleko bi langileak pozik agertu dira erabakiarekin. Izan ere, beste hainbat herritan gertatzen den moduan, udal langileak ez daude guztiz konforme euren lan baldintzekin. Udaleko ordezkariak adierazi digutenaren arabera, ez diote inolako oztoporik jarri eskaerari, ongi iruditzen zaie eta Udaleko langileen eskaera. Datozen asteotan emaitzak lortzea espero dute.

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA


Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gainera informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21



SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

%30 %40 %50

**EKO
DESKONTUAKO**

SPORTLAND ARRASATE,
Garibal Etorbidea, 2-6,
www.forumsport.com

*Iragarki honetan adierazitako deskontuak
2004ko Abuztuaren 31 arte balio dute



*Maulanda
merenderoa*



MAULANDA MERENDEROA

Maulanda auzoa, 20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

**Eguneroko
menua!**






MARI KARMEN oinetakoak/ Errekabarren 22 Aretxabaleta
Sandaliak 35,50€ 24,85€



IRIARTE umeen moda / Durana 8 Aretxabaleta
MIRANDA soinekoa 35,80€ 25,06€



HAURRAK umeen denda/ Lezama zentro komertziala 15 Aretxabaleta
PETIT BOY trajea 81,13€ 56,79€



XARMANTA opariak/ Gaztanadui 21 Eskoriatza
ACQUA bikinia 69,50€ 48,65€



LIE lurrindegia/ Mitarte 18 Aretxabaleta
MAJESTIC bikinia 50€ 30€

beherapenak!

beherapenak

behera